



EBAZPENA, 2021eko ekainaren 18koa, Ikaskuntzaren eta Berrikuntzaren zuzendaritzarena, zeinaren bidez zuzendaritza-gaitasunen hasierako prestakuntza eta eguneratze-programak arautzen baitiren.

Otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuak prozedura arautzen du Hezkuntza Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendaria aukeratzeko eta pertsona bakarreko beste gobernu-organoak izendatzeko eta kargua uzteko. Dekretu horrek zehazten ditu 14.artikuluaren, ikastetxe publikoetan zuzendaritza-karguaz arduratzeko hautagaiek gainditu behar duten hasierako prestakuntza eta zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko programen baldintzak. Artikulu horrek, halaber, xedatzen du irakasleen prestakuntzaren arloan eskumena duen zuzendaritzari dagokiola –kasu honetan, Ikaskuntzaren eta Berrikuntzaren zuzendaritzari– prestakuntza programen antolakuntza, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehazteko ebazpena ematea.

Orobat, Dekretu beraren 7. artikulua aplikatuz, 2020ko abenduaren 9ko Aginduaren bidez merezimendu-lehiaketa antolatu eta deialdia egin da Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko, 2021eko ekainaren 30etik aurrera lanpostu hori hutsik izango duten ikastetxeetan.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena. – Xedea

Hasierako prestakuntzaren eta zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko programen 2020-2021eko ikasturterako antolakuntza, edukiak eta ebaluazioa zehaztea.

Bigarrena. -Prestakuntza eta eguneratze ikastaroen ezaugarriak eta egutegia

1.- 2020ko abenduaren 9ko Aginduaren 3. artikulua 4. atalak dio hautagaiek, kasu bakoitzean, eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituztela, Agindua bera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdia argitaratu den egunean, 3.1 artikuluko d) atalean ezarritako baldintza izan ezik. Baldintza hori hezkuntza-administrazioek emandako zuzendaritza-eginkizunaren garapenari buruzko prestakuntza-ikastaro bat edo, hala badagokio, zuzendaritza-eskumenak eguneratzeko ikastaro bat gainditu izana egiaztatzeari dagokio. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eragindako alarma egoeraren adierazpenaren ondorioz, hezkuntza-administrazioak antolatutako prestakuntza-ekintza guztiak etenda geratu ziren. Hori dela eta, baldintza hori betetzen ez zuten hautagaiek betetzearen egiaztapena atzeratu ahal izan dute 2021eko ekainaren 25era arte. Prestakuntza-ikastaro horiek data horretan indarrean dagoen araudiaren arabera eska daitezkeen ezaugarriak izan beharko dituzte.



2.- Hasierako prestakuntzaren eta zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko programa egingo da ikasturte honetako urtarriletik ekaina bitartean, hurrengo ezaugarriak dituzten moduluetan banatuta:

	Hasierako Prestakuntza Programa	Zuzendaritza-gaitasunak Eguneratzeko Programa
1. modulua: Zuzendaritza proiektua egiten laguntzeko ikastaroa, 2021eko urtarrilaren 14 eta 15ean	x	
2. modulua: Esku-hartze estrategikoa eta bizikidetzeta, 2021eko otsailaren 24 eta 25ean	x	x
3. modulua: Antolaketa eta funtzionamendua, 2021eko martxoaren 24 eta 25ean	x	
4. modulua: Lidergo pedagogikoa, 2021eko apirilaren 19 eta 20an	x	x
5. modulua: Partaidetza eta lankidetzeta, 2021eko maiatzaren 19 eta 20an	x	
6. modulua: Aldaketaren kudeaketa eta ebaluazioa, 2021eko ekainaren 16 eta 17an	x	x

3.- Saioen ordu kopurua

Orobat, prestakuntza programak 15 orduko moduluetan banatuko dira, horietako 6 modu sinkronoan eta 9 asinkronoan.

- Hasierako prestakuntza programa 6 moduluetan banatuta egongo da eta guztira 90 orduko iraupena izango du.
- Zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko programak, aldiz, 3 modulu izango ditu eta guztira 45 orduko iraupena izango du.

Hirugarrena. – Parte-hartzaileak

1. 2020ko abenduaren 9ko aginduaren IV. eranskinean ageri diren ikastetxeetako irakasleak zeinetan hutsik geratuko diren zuzendari-postuak. Baita Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasle oro ere.
2. Ikastetxeen zuzendaritzaren edota kudeaketaren inguruko Masterrik edota Graduondoko titulu ofizialik dutenek modulu tronkal guztiak eta aipatutako Ebazpenak ezartzen dituen modulu espezifikoak egitetik salbuetsita egongo dira, baita ebaluazioa egitetik ere, baina, edonola ere, I. modulua: "zuzendaritza proiektua" egin beharko dute.



3. Hasierako prestakuntza programaren betekizuna:

a.- 2020ko abenduaren 9ko Aginduaren 3. artikulua d) atalean zuzendaritza proiektua aurkeztu duten hautagaien betebeharren artean zuzendaritza eginkizunei buruzko prestakuntza ikastaroa egiaztatu eta ziurtagiria aurkeztearen betekizuna jasotzen da, ebazpen honen 3.2. puntuan ezarritako salbuespenarekin.

4. Zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko ikastaroaren betekizuna:

- a) 2020ko abenduaren 9ko Aginduaren 3. artikulua d) atalean ezartzen den bezala-Hezkuntza arloko administrazioek zuzendaritza-eginkizunei buruz emandako prestakuntza-ikastaroa gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria dutenek, urriaren 17ko 894/2014 Errege Dekretuaren 2. artikulua 6. zenbakian ezarritakoaren arabera, ziurtagiri hori eman zenetik zortzi urte igaro badira, zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko ikastaro bat gainditu ondoren baino ezin izango dute parte hartu zuzendaria izendatzeko hautaketa-prozeduran.
- b) Orobat, Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, ikastetxe publikoetako zuzendarien gaikuntzak eta egiaztatzeak, 2014ko urtarrilaren 3a baino lehen eman badira, ziurtagiri horren parekoak izango dira; dena dela, urriaren 17ko 894/2014 Errege Dekretuaren xedapen iragankor bakarraren 1. zenbakian ezarritakoaren arabera, gaikuntza eta egiaztatze horiek dituztenek zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko ikastaro bat gainditu ondoren bakarrik parte hartu ahal izango dute zuzendari izendatzeko hautaketa-prozesuan.
- c) Halaber, urriaren 17ko 894/2014 Errege Dekretuaren xedapen iragankor bakarraren 2. zenbakian ezarritakoaren arabera, 2014ko urtarrilaren 3an edo hurrengo bost urteetan ikastetxe publiko bateko zuzendari-eginkizunak bete dituztenek ez dute egiaztatu behariko hezkuntza arloko administrazioek emandako zuzendaritza-eginkizunei buruzko prestakuntza-ikastaroa gainditu dutenik; aitzitik, zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko ikastaro bat gainditu ondoren, zuzendaria izendatzeko hautaketa-prozeduran parte hartu ahal izango dute.

Laugarrena.- Ebaluazio-irizpideak

Parte-hartzaileen ebaluazioa honetan oinarrituko da:

- a) Moduluetan matrikulatuta egotea eta prestakuntza saioetan parte-hartzea.
- b) Arduradunak eskatzen dituzten lanak burutzea eta Moodle plataformara igotzea.



Bosgarrena.— Ebaluazio-batzordea

- 1- *Hasierako prestakuntzaren eta zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko programaren parte-hartzaileak ebaluatzeko, batzorde bat osatuko da honako hauek osatuko dutena:*
 - Lehendakaria: Ikaskuntzaren eta Berrikuntzaren zuzendariak edo horrek izendatutako ordezkari bat; batzordeburua izango da.
 - Batzordekideak:
 - Hezkuntza-Ikuskatzaile bat, Hezkuntza Saileko ikuskari nagusiak proposatuta, Ikaskuntzaren eta Berrikuntzaren zuzendariak izendatuko duena
 - Berritzegune bateko zuzendaria, ikaskuntzaren eta Berrikuntzaren zuzendariak izendatuko duena
 - Idazkaria: Berritzegune Nagusiko Eskola Antolaketa programako teknikari bat.
- 2- Ebaluazio-batzordeak zehaztuko du zer parte-hartzailek gainditu duen *Hasierako prestakuntzaren eta zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko programa*, aurreko artikuluan adierazitako ebaluazio-irizpideen arabera. Parte-hartzaileei “Gai” edo “Ez gai” kalifikazioa emango zaie, eta halaxe geratuko da jasota dagokien aktan.
- 3- Ondoren, parte-hartzaileei posta elektronikoz jakinaraziko zaie “Gai” edo “Ez gai” kalifikazioa jaso duten. “Ez gai” kalifikazioa dutenek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, jakinarazpena egiten denetik hasita bi eguneko epean, eta Ebaluazio-batzordeak aztertu egingo ditu.
- 4- Prozedura amaitu ondoren, Ikaskuntzaren eta Berrikuntzaren zuzendariak ebazpena emango du “Gai” kalifikazioa jaso duten hautagaien behin betiko zerrendarekin, eta lurralde ordezkariari helaraziko zaie ekainaren 25a baino lehen, zuzendariak izenda ditzaten.

Gasteizen, 2021eko ekainaren 18a



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
AMAIA AGIRRE PINEDO

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria